**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **10. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena**<br>**10. *Infraestructuras y Desarrollo Territorial*** | **03.** Berrikuntza eta Bideen Kudeaketa<br>**03.** *Innovación y Gestión Viaria* | **453.115** Berrikuntza, Ustiapena eta Desjabetzeak<br>**453.115** *Innovación, Explotación y Expropiaciones* |

453.115 programak, "Berrikuntza, Ustiapena eta Desjabetzeak", zeharkako zenbait arlo biltzen ditu, zuzeneko mendekotasuna dutenak Berrikuntzako eta Bide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusiarekin.

Jarduteko honako ildo hauek biltzen ditu:

1. Bideen Berrikuntza.
2. Ustiapena.
3. Desjabetze eta Eraginpeko Zerbitzuak.
4. Interbiak Bizkaia, S.A.M.P.

Horrez gain, N-636 errepidea (Geregiaga-Elorrioko zatia) eraiki, artatu eta ustiatzeko emakida eskuratzearen ziozko kanonari aurre egiteko partida ekonomikoak ere biltzen ditu, baita jada eginda dagoen Elorrioko saihesbideko zatia artatzekoak ere 2022 urtean 35,04 milioi euro ordaindu dira.

Programa honetan biltzen dira hileko gastuaren mugarengatiko dirulaguntzak ere, Tarifen Sistema Integrala 2017ko urtarrilaren 1ean BFAren menpekokoak eta ordaintzekoak diren errepideetan ezarri ondorengoak,  2018an, foru-aldundien titulartasunekoetara eta 2022an AP-68 errepidera zabaldu da. 2022an 9,01 milioi euroko dirulaguntzak eman dira.

El programa 453.115 “Innovación, Explotación y Expropiaciones” agrupa algunas áreas de carácter transversal, con dependencia directa de la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria.

Incluye las siguientes áreas de actuación:

1. Innovación Viaria.
2. Explotación.
3. Expropiaciones y Servicios Afectados.
4. Interbiak Bizkaia S.A.M.P.

Además contempla las partidas económicas para atender el canon por disponibilidad de la concesión para la construcción, conservación y explotación de la carretera N-636, tramo Gerediaga-Elorrio y la conservación del tramo ya construido Variante de Elorrio. En 2022se ha pagado 35,04 millones de euros.

También se incluyen en este programa las subvenciones por el límite de gasto mensual tras la implantación el 01/01/2017 del Sistema Integral de Tarifas sobre las carreteras de peaje dependientes de la DFB, ampliado en 2018 a las de titularidad de las Diputaciones Forales y en 2022 a la AP-68. En 2022 se ha subvencionado por importe de 9,01 millones de euros.

## 1. Bideen berrikuntza

Helburuak honako hauek dira:

- Bide-sarean etengabeko hobekuntza eta berriztatzea bultzatzea, teknologia, material eta prozesu berriak aplikatuz eta materialak berrerabiltzeari eta birziklatzeari buruzko ikerketaren bidez.
- Errepideen inbentarioa eta katalogoa eguneratuta edukitzea.

## 1. Innovación Viaria

Los objetivos son los siguientes:

- Impulsar la innovación en la red viaria mediante la aplicación de nuevas tecnologías, materiales y procesos, y mediante la investigación en reutilización y reciclaje de materiales.
- Mantener actualizado el inventario y el catálogo de carreteras.

- Informazio geografikoko sistema mantentzea eta hobetzea.

- Bizkaiko errepideetan aplikatzeko material eta teknologia berriak aztertzea.

- Errepideetako berrikuntza-plana kudeatzea eta haren jarraipen operatiboa egitea.

- Europako finantzaketa-programetarako errepide-proiektuen aurkezpena koordinatzea eta izapidetzea.

- Mantener y mejorar el Sistema de información geográfica.

- Análisis de nuevos materiales y tecnologías para su aplicación en carreteras de Bizkaia.

- Gestión y seguimiento operativo del plan de innovación de carreteras.

- Coordinación y tramitación de la presentación de proyectos de carreteras a programas de financiación europea.

## 1.1. Errepide-sarearen inbentarioa eta egitura- eta funtzio-egokitzapena.

Errepideen ezaugarri fisiko eta funtzionalen inbentarioa mantentzea.

Mobile Mapping-ekin datuak biltzeko kanpaina gauzatzea, BIM aurreinbentarioen eta sarearen parametrizazio geometrikoen probak egin ahal izateko.

2017a baino lehenagoko egituren foru-ikuskapen orokorretako kanpainetan ezarritako zubiak kudeatzeko sistema mantentzea.

Errepideen eta lotutako elementuen sarean gertatutako aldaketa guztien eguneratze grafikoa. Errepideen katalogoa eguneratzea.

## 1.1. Inventario y Auscultación Estructural y Funcional de la red de carreteras.

Mantenimiento del inventario de las características físicas y funcionales de las carreteras.

Realización de la campaña de toma de datos con Mobile Mapping que permitirá realizar pruebas de preinventarios BIM y parametrizaciones geométricas de la red.

Mantenimiento del Sistema de Gestión de Puentes implementado en campañas de inspección generales forales de estructuras anteriores a 2017.

Actualización gráfica de todas las modificaciones producidas en la Red de Carreteras y elementos vinculados. Actualización del catálogo de Carreteras.

## 1.2. Errepideetako GIS.

Sailaren Informazio Geografikoko Sistema indartsu batean datuak ustiatzea ahalbidetzen duten GIS espezifikoak ezartzeko prozesuekin jarraitzea.

GIS Web aplikazioa mantentzea eta hobetzea, gailu mugikorretatik GIS datuen urruneko sarbidea

## 1.2. GIS de Carreteras.

Continuación con los procesos de implementación de desarrollos GIS específicos que permiten la explotación de datos en un potente Sistema de Información Geográfica del Departamento.

Mantenimiento y mejoras de la aplicación GIS Web que permite el acceso remoto a los datos del

eta irisbidea izateko. Erabiltzaile espezifikoentzako aplikazioak garatzea.

GIS desde dispositivos móviles. Desarrollo de aplicaciones para usuarios específicos.

### 1.3. Errepideetan aplika daitezkeen obra-unitate eta material berriak aztertzea.

### 1.3. Estudio y análisis de nuevas unidades de obra y nuevos materiales de potencial aplicación en carreteras.

Bizkaiko errepideetan aplikatzeko material eta teknologia potentzial berriak aztertzen dira.

Se analizan potenciales nuevos materiales y tecnologías para  su aplicación en carreteras de Bizkaia.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin lankidetzan, lohiak erraustearen ondoriozko errautsak aztertzen dira, errepideetako obretan izan ditzaketen aprobetxamendu-eremuak aztertzeko

En cooperación con el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, se aborda el estudio de las cenizas procedentes de la incineración de lodos al objeto de analizar sus potenciales campos de aprovechamiento en las obras de carreteras.

### 1.4. Bide Azpiegituretako Berrikuntza Plana.

### 1.4. Plan de Innovación en Infraestructuras Viarias.

Bizkaiko Bide Azpiegituretako Berrikuntza Planaren (2020-2023) kudeaketa eta jarraipen operatiboa, Bide Azpiegituretako Berrikuntza Sustatzeko Dirulaguntzei buruzko Foru Dekretua barne (2022).

Gestión y seguimiento operativo del Plan de Innovación en infraestructuras viarias de Bizkaia 2020-2023, incluido el Decreto Foral de Subvenciones para la promoción de la innovación en infraestructuras viarias 2022.

### 1.5. Programa Europarrak.

### 1.5. Programas Europeos.

Europar Batasuneko funtsen programetara aurkez daitezkeen Sailaren jarduera eta proiektuen koordinazioa, kudeaketa eta lankidetza: Next Generation, EGEF, CEF-Transport eta Horizon Europe.

Coordinación, gestión y colaboración de las actuaciones y proyectos del Departamento susceptibles de presentación a los programas de Fondos de la Unión Europea: Next Generation, FEDER , CEF-Transport y Horizon Europe.

Proiektuak Europako programetara aurkezteko aholkularitza eta laguntza teknikoko kontratua zuzentzea.  Haren xedeak eta helmenak Europar Batasuneko programetan proiektuak aurkeztearekin lotutako jarduerak nahiz berrikuntzako erosketa publikoarekin lotutakoak biltzen ditu.

Dirección del contrato de consultoría y asistencia técnica para presentación de proyectos a programas europeos. Su objeto y alcance incluye tanto actividades vinculadas a la presentación de proyectos en programas de la Unión Europea como de la compra pública de innovación.

1.6. Teknologia berriak.

BIM. Sailaren barruan, BIM metodologiaren ezarpen progresiboa aztertzeko, analizatzeko eta ebaluatzeko jarduerak koordinatzea, Bizkaiko beste eragile publiko eta pribatu batzuekiko lankidetza barne.

C-ROADS. C-ROADS Cantábrico pilotuaren Sailaren barruko koordinazioa.

Bide Berrikuntza Zerbitzuari aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko kontratua zuzentzea. Haren xedea eta irismena bide-berrikuntzaren arloko ekintza-ildoei eta aholkularitza estrategikoari lotutako jarduerek osatzen dute nagusiki.

## 2. Ustiapena.

Helburuak honako hauek dira:

- Errepideen foru-sarearen eta foru bidegorrien ustiapena zuzentzea eta gainbegiratzea, bai eta arlo horietan indarrean dagoen legeria babesteari buruzko eta errepideari, foru bidegorriei edo horien elementuetako edozeini kalte eginez gero erantzukizunak zehazteari eta eskatzeari buruzko izapidetze osoa ere, zehapen-espedienteen instrukzioa barne.

- Baimenen alderdi teknikoei buruzko informazioa ematea, bai eta txosten teknikoa behar duten gainerako espedienteei buruzkoa ere, baimendutako obren jarraipena barne.

- Foru errepideen eta bidegorrien zerbitzu publikoaren kudeaketatik eratorritako ondare-erantzukizunaren arloan egiten diren administrazio-erreklamazioei buruzko txostenak eta izapideak egitea, baita honako

1.6. Nuevas tecnologías.

BIM. Coordinación dentro del Departamento de las actividades encaminadas al estudio, análisis y evaluación de la implantación progresiva, incluyendo la colaboración con otros agentes públicos y privados de Bizkaia, de la metodología BIM.

C-ROADS. Coordinación dentro del Departamento del Piloto de C-ROADS Cantábrico.

Dirección del contrato de consultoría y asistencia técnica al Servicio de Innovación Viaria. Su objeto y alcance contempla principalmente actividades vinculadas a las líneas de acción y consultoría estratégica en materia de Innovación Viaria.

## 2. Explotación.

Los objetivos son los siguientes:

- La dirección y supervisión de la explotación de la red foral de carreteras y vías ciclistas forales y toda la tramitación, incluida la instrucción de expedientes sancionadores, relativa a la protección de la legalidad vigente en estas materias y a la determinación y exigencia de responsabilidades en caso de daños a la carretera y vías ciclistas forales o a cualquiera de sus elementos.

- Informar sobre los aspectos técnicos de las autorizaciones, así como los demás expedientes que requieran de informe técnico, incluido el seguimiento de las obras autorizadas.

- Informar y tramitar las reclamaciones administrativas que se formulen en materia de responsabilidad patrimonial derivadas de la gestión del servicio público de carreteras y vías ciclistas forales, incluyendo las

hauek ere: foru errepideak eta bidegorriak mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzu-kontratuko obrak gauzatzearen ondoriozko kalteei buruzkoak eta zerbitzuan jarritako azpiegituren ondoriozko zarata-arloko erantzukizunei buruzkoak.

- Foru errepide eta bidegorrien ustiapenaren arloan babes juridikoa ematea eta indarrean dagoen legeria betetzea, eta sektoreko legedien esparruan ustiaketa horrek dituen zereginak koordinatzea.

- Aholkularitza eta laguntza ematea Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bide-azpiegituren arloan dituen eskumenen esparruan erakundeekin eta/edo partikularrekin sinatutako lankidetza-hitzarmenak osorik izapidetzeko, Zerbitzu Orokorren Zerbitzuko Atal Juridiko Administratiboaren eskumenekoak direnak izan ezik.

- Foru titulartasuneko errepide zatien lagapenari buruzko erakunde arteko akordioen aholkularitza juridikoa eta ikuskapena.

- Zuzendaritza Nagusiari aholkularitza juridikoa ematea, lege- eta arau-dokumentuen azterketak eta analisiak eginez, bere eskumeneko gaietan duten eragina zehazteko. Errepideen legedi sektorialean eragina duten arau testuak idatzi eta horien onarpena proposatzea.

- AP-68 errepideko eskualdaketa izapidetzean eta Emakida Ordezkaritzaren gaietan aholkularitza juridikoa eta laguntza, bidesarien kontuan izan ezik.

- Zerbitzuari esleitutako urteko aurrekontua proposatu eta kudeatzea.

relacionadas con daños derivados de la ejecución de las obras incluidas dentro del contrato de servicio de mantenimiento y conservación de carreteras y vías ciclistas forales y las responsabilidades en materia de ruido derivadas de las infraestructuras puestas en servicio.

- La protección jurídica y de la legalidad vigente en materia de explotación de carreteras y vías ciclistas forales y coordinación de las diferentes tareas de la misma en el ámbito de las legislaciones sectoriales.

- Asesoramiento y asistencia en la íntegra tramitación de los convenios de colaboración firmados con las instituciones y/o particulares en el ámbito de las competencias en infraestructuras viarias del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, excluyendo los que sean de la competencia de la Sección Juridico-Administrativa del Servicio de Servicios Generales.

- Asesoramiento jurídico y supervisión de los acuerdos interinstitucionales relativos a la cesión de tramos de carreteras de titularidad foral.

- Asesoramiento jurídica a la Dirección General mediante la realización de estudios y análisis de documentos legislativos y normativos a los efectos de determinar su incidencia en materias propias de su competencia. Así como redactar y proponer la aprobación de textos normativos con incidencia en la legislación sectorial de carreteras.

- Asesoramiento jurídico y asistencia en la tramitación del traspaso de la AP-68 y de los asuntos de la Delegación de Concesiones, a excepción de lo relativo a los peajes.

- Proponer y gestionar el presupuesto anual asignado al servicio.

Helburu horiek betetzeko, errepideen ustiapeneko txosten tekniko eta juridiko askotarikoak egin behar dira.

Zerbitzu honen 2022ko jarduerak honakoak izan dira:

- Baimenak: Izapidetzea, garraio bereziak, tasak, prezio publikoak eta fidantza/abalak.
- Bide-ondarearen erabilerari eta babesari buruzko jarduketak: kalteak ordaintzea, errepideen araudia ez betetzearen ziozko lege-babesaren gaineko espedienteak (salaketak, zehapenak), ondare-erantzukizuna eta hainbat jarduketa.
- Hona hemen 2022/01/01etik 2022/12/31ra hasitako espedienteen kopurua
- J1- Ondare-erantzukizuna: 129
- J2 –Baimenak: 1.900
- J2 –Garraio bereziak: 463
- J3 –Kalteak ordaintzea: 660
- J4-Zigor-espedienteak: 58
- J5- Aurretiazko jarduketak: 537
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 1., 2. eta 3. eremuetako errepideak eta gaitasun altuko sareko errepideak ustiatzeko kontratuen jarraipena, erabilerari eta defentsari, zaintza-jarduerei eta foru-arauari egokitutako erabilerak kontrolatzeko beharrezkoak diren gainerako jarduerei dagokienez, foru-azpiegiturak eta horien babes-eremuak erabilera desegokietatik babesteko.

Para la realización de estos objetivos se precisa elaborar informes técnicos y jurídicos de explotación de carreteras de materia muy variada

Las actividades de este Servicio en 2022 han sido las siguientes:

- Autorizaciones: tramitación, transportes especiales, tasas, precios públicos y fianzas/avales.
- Actuaciones sobre el uso y protección del patrimonio viario: resarcimiento de daños, expedientes relativos a la protección de la legalidad por incumplimiento de la normativa de carreteras (denuncias, sanciones), responsabilidad patrimonial y actuaciones varias.
- El nº de exptes. abiertos entre el 01/01/2022 y el 31/12/2022 ha sido:
- J1- Responsabilidad patrimonial: 129
- J2 –Autorizaciones: 1.900
- J2 –Transportes Especiales: 463
- J3 –Resarcimiento de Daños: 660
- J4-Sancionadores: 58
- J5- Actuaciones Previas: 537
- Seguimiento de los contratos de Explotación de carreteras de la red de alta capacidad y de las carreteras de las áreas 1, 2 y 3 de la Diputación Foral de Bizkaia, en cuanto a su uso y defensa, las actividades de vigilancia y el resto de actividades necesarias para un control de usos adecuados a la norma foral para proteger a las infraestructuras forales y sus zonas de protección de usos indebidos.

- Ustiapen Zerbitzuari txostenak egiten laguntzeko beharrezko azterlan osagarriak egiteko eman beharreko laguntza teknikoaren kontratuaren jarraipena.

- Seguimiento del contrato de Asistencia Técnica al Servicio de Explotación para la realización de Estudios Complementarios necesarios para la ayuda a la realización de informes.

## 3. Desjabetzeak eta Eraginpeko Zerbitzuak.

Aribideko obrek, egingo diren obrek eta Interbiaken bitartez egingo direnek ukituko dituzten zerbitzuen birjarpenen eta desjabetzeen jarraipena.

Jarraian zehazten diren proiektuek ukitzen dituzten zerbitzuak kudeatu dira:

- Aurretik hasitakoak egin dira, honako proiektu hauetan: Buiatik Venta Altarako bidegorria (MHS), Malabrigoko biribilgunea BI-630 errepidean, BI-2120 errepidearen hobekuntza Asteinzan (Maruri), Gurutzetatik Rontegirako sarbidea, BI-2238 errepidearen hobekuntza Arteagan, Ibaizabaleko bidegorria (Amorebieta - Iurreta tartea), N-634 errepidearen hobekuntza Euba eta Amorebieta artean, eta N-636 errepideko hirugarren erreia Kanpazarren (II. fasea).

- Jarduketa berriak izapidetu dira, 2022an eta 2023an egin beharrekoak, honako hauei dagokienez: Irubideko biribilgunea N-634 errepidean (Galdakao), Santo Domingotik Galbarriaturako tartearen hobekuntza, La Avanzada estaltzeko lanak, BI-625 errepidearen hobekuntza Arabarekiko mugan (Saratxo), BI-2235 errepidearen hobekuntza Busturian eta Muruetan, La Herrerako bidegorria (II. fasea), eta itsasadarreko oinezko ardatza (Altzaga-Lamiako).

- Azkenik, idazkuntza fasean dauden proiektu hauetan egin da lan: N-634 errepidearen hobekuntza Zaldibarren, BI-735 errepidearen

## 3. Expropiaciones y Servicios Afectados.

Continuación de las expropiaciones y las reposiciones de servicios afectados para las obras en curso, las futuras a acometer y aquellas que serán ejecutadas a través de Interbiak.

Se han gestionado servicios afectados en relación con los proyectos que seguidamente se detallan:

- Se han ejecutado los iniciados anteriormente respecto a los siguientes proyectos:Bidegorri de Buia a Venta Alta (V.S.M.), Rotonda de Malabrigo en la BI-630, la mejora de la BI-2120 en Asteinza (Maruri), el acceso a Rontegi desde Cruces, la mejora de la BI-2238 en Arteaga, la Bicipista del Ibaizabal (Tramo Amorebieta – Iurreta), la mejora de la N-634 entre Euba y Amorebieta y el tercer carril de la N-636 en Kanpazar Fase II.

- Se han tramitando nuevas actuaciones, a ejecutar en 2022 y 2023, respecto a: Rotonda de Irubide en la N-634 (Galdakao), mejora del tramo de Santo Domingo a Galbarriatu, cubricion de la Avanzada, mejora de la BI-625 en el limite con Alava (Saratxo), mejora de la BI-2235 en Busturia y Murueta, vial ciclista de la Herrera Fase II y eje peatonal de la Ria Tramo Altzaga – Lamiako

- Finalmente, se ha trabajado en los siguientes proyectos en fase de redacción: mejora de la N-634 en Zaldibar, mejora en la BI-735 a la

hobekuntza Makro parean, BI-2405 errepidearen hobekuntza Milloin, Ibaizabaleko bidegorria (Erletxe-Boroa), Txorierriko bidegorria (Erletxe-Larrabetzu), Nerbioi-Ibaizabal bidegorria (Basauri), La Arenako bidegorria (III. fasea), BI-633 eta BI-2636 arteko lotura Markina-Etxebarrin, eta itsasadarreko oinezko ardatza (Lutxana).

Desjabetzeetan, hogeita bi espedientetan jardun da. Horietatik zortzi dira jarduera eta proiektu berriekin lotutakoak (BI-20 Galbarriatun, BI-2120 Asteinzan, plataforma ordezkatzeko lanak BI-633 errepidean, N-634 Azoka-Irube, ordainketa sistemen 1. lotea, BI-636 errepidearen hobekuntza Zallan, La Herrerako bidegorriaren bigarren fasea, eta Ermuko saihesbideko tunelaren hegoaldeko ahoaren hobekuntza) eta gainerakoa martxan edo amaituta dauden obretara bideratu da.

Jabetza Erregistroen aldetik, berrogei proiektutan jardun da, eta jarraipena eman zaio jabetza publikoko lurrak nahiz ondare lurrak inskribatzeko lan nekezari.

Gainera, desjabetze espedientea izapidetzen jarraitu da, haren kudeaketa Zerbitzuari aginduz, Arteaga-Gautegizko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren bidez.

Azkenik, egiaztatu da Ustiapen Zerbitzuak eskatutako balorazioak egin direla, balioa handitzeari uko egitea dakarten baimen-espedienteetan sartzeko (hamabost), eta hainbat udalerriri lagatako foru-errepideen hamaika zati mugatu dira.

altura del Makro, mejora de la BI-2405 en el Alto de Milloi, Bicipista del Ibaizabal Tramo Erletxe – Boroa, Bicipista del Txorierri Tramo Erletxe – Larrabetzu, Bicipista Nerbioi – Ibaizabal en Basauri, Biegorri de la Arena Fase III, conexión de la BI-633 con la BI-2636 en Markina – Etxebarria y eje peatonal Ria - Tramo Lutxana.

En expropiaciones se ha actuado en veintidós expedientes, de los que ocho corresponden a actuaciones y proyectos nuevos (BI-20 en Galbarriatu, BI-2120 en Asteinza, restitución de plataforma en BI-633, N-634 Mercadillo-Irubide, lote 1 de sistemas de pago, mejora de la BI-631 en Zalla, segunda fase del bidegorri de La Herrera y mejora boca sur del túnel de la variante de Ermua) y el resto a obras en marcha o finalizadas.

A nivel de Registros de la Propiedad se han realizado gestiones respecto a cuarenta proyectos, continuando con el laborioso proceso de inscripción de terrenos tanto de dominio público como patrimoniales.

Se ha continuado además con la tramitación del expediente expropiatorio cuya gestión ha sido encomendada al Servicio mediante convenio suscrito con el ayuntamiento de Gautegiz de Arteaga.

Finalmente se constata que se han realizado las valoraciones requeridas por el Servicio de Explotación para su incorporación a expedientes de autorización que conllevan renuncia al incremento del valor (quince) y se ha trabajado en la delimitación de once tramos de carreteras forales que han sido cedidos a diferentes municipios.

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
| --- | --- | --- |
| **10. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena**<br>***10. Infraestructuras y Desarrollo Territorial*** | **03.** Berrikuntza eta Bideen Kudeaketa<br>**03.** *Innovación y Gestión Viaria* | **453.115** Berrikuntza, Ustiapena eta Desjabetzeak<br>**453.115** *Innovación, Explotación y Expropiaciones* |

## 4. Interbiak Bizkaia S.A.M.P.

Interbiak Bizkaia S.A.M.P. sozietaterako kapital-handitzeak egin dira.

Interbiak Bizkaia S.A.M.P. fortu sozietateari dagokionez:

- AP-8 Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen zatia, AP-8 autobidearen 74+880 KPtik 106+040 KPra artekoa eta Artxandako tunelak ustiatzen ari da.
- Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideko 1b fasea eta BFAk agindutako hainbat obra egiten ditu.
- Gerediaga-Elorrio eskualdeko ardatzaren emakidaren ikuskapen orokorra egiten du.

## 4. Interbiak Bizkaia S.A.M.P.

Se han realizado las ampliaciones de capital a Interbiak Bizkaia S.A.M.P.

En lo relativo a la Sociedad Foral Interbiak Bizkaia S.A.M.P.:

- Está explotando la AP-8 tramo Variante Sur Metropolitana, la AP-8 desde el pk 74+880 al 106+040 y los Túneles de Artxanda.
- Ejecuta la fase 1b de la Variante Sur Metropolitana y diferentes obras encomendadas por la DFB.
- Realiza la inspección general de la Concesión del eje comarcal Gerediaga-Elorrio.